



Kiroltako eta Kanpo Ekintzako Departamentua
Kirol Zuzendaritza Nagusia

IRTEERA-SALIDA	Gipuzkoako Foru Aldundia Diputación Foral de Gipuzkoa Kiroltako eta Kanpo Ekintzako Departamentua de Deportes y Acción Exterior Departamento de Deportes y Acción Exterior Dirección General de Deportes
	2010 IRA. SET. - 2
Zk. / N.º	771

02	E/R	108	2010
----	-----	-----	------

Kiroltako zuzendari nagusiak ondoko ebazpena eman du gaur:

1998ko ekainaren 11ko 14/1998 legeak, Euskadiko kirolarenak, 5 h) artikuluan xedatutakoaren arabera, foru aldundiei dagokie, zeini bere lurralde-esparruan, eskumen hau: "lurraldeko kirol-federazioak onartzea, laguntzea, finantzatzea, ikuskatzea eta kontrolatzea beren egiteko publikoak bete ditzatela bermatzeko, beren jarduera pribatuaren kalterik gabe".

Lurraldeetako kirol federazioen esku hartze eta kontrol funtzioen artean estatutuak eta erregelamenduak onartzeko ahalmena ere sartzen da, besteak beste. Azken horiei dagokienez, 2006ko urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuak, Euskadiko kirol federazioei buruzkoak, Kirolaren legea garatzen du kirol federazioei dagokienez, eta honako hau dio, 69. artikuluan:

- ".....
- 2.- Lurraldeko federazioen arautegiak Foru Aldundiko dagokion organoari onar ditzan aurkeztuko zaizkio, hirurogei eguneko epean, federazioko batzar nagusian onartzen diren unetik zenbatzen hasita.
 - 3.- Arautegi horiek Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan aurkeztu beharko dira, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Erakundearen Erregistroak eskatzen duen euskarri informatikoan.
 - 4.- Eskumena duen organoak arautegien administrazio onarpena emango du bi hilabeteko epean, eskaera erregistroan sartzen den unetik zenbatzen hasita.
 - 5.- Euskadiko eta lurraldeko federazioen arautegiak nahiz horien aldaketak Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Erakundearen

El director general de Deportes ha dictado con fecha de hoy la siguiente resolución:

La Ley 14/1998, de 11 de junio, del deporte del País Vasco, asigna, en su artículo 5 h), a las diputaciones forales de los territorios históricos la competencia para "la aprobación de las federaciones deportivas territoriales, así como su asistencia, financiación, intervención y control para garantizar el cumplimiento de sus funciones públicas, sin menoscabo de su actividad privada".

Dentro de las funciones de intervención y control de las federaciones deportivas territoriales podemos situar la potestad de aprobar sus estatutos y reglamentos. En lo que a estos últimos se refiere, el Decreto 16/2006, de 31 de enero, de las federaciones deportivas del País Vasco, que desarrolla el texto legal en relación con las entidades federativas, en su artículo 69, señala lo siguiente:

- ".....
- 2.- Los reglamentos de las federaciones territoriales se presentarán para su aprobación en el órgano de la correspondiente Diputación Foral en el plazo de sesenta días a partir de su aprobación por la asamblea general federativa.
 - 3.- Dichos reglamentos deberán presentarse en las dos lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma de Euskadi y en el soporte informático que sea requerido por el Registro de Entidades Deportivas del País Vasco.
 - 4.- El órgano competente procederá a la aprobación administrativa de los reglamentos en el plazo de dos meses a contar desde la fecha en que la solicitud haya tenido entrada en el registro.
 - 5.- Los reglamentos de las federaciones territoriales y de las federaciones vascas, así como sus modificaciones, una vez aprobados



Kiroletako eta Kanpo Ekintzako Departamentua
Kirol Zuzendaritza Nagusia

Departamento de Deportes y Acción Exterior
Dirección General de Deportes

Erregistroan erregistratuko dira, behin administrazioaren aldetik onartu direnean.

6.- Federazio estatutuak indarrean sartzeko, onartu egin beharko dira eta Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Erakundeen Erregistroan erregistratu beharko dira. Arautegi horiek erregistratzen diren unetik egongo dira indarrean, bai federatuentzat, bai hirugarren pertsona eta erakundeentzat. Administrazio onarpena eman bitartean, federazioko arautegiak inongo eraginkortasunik gabeko proiektuak dira”.

Gipuzkoako Xake Federazioak Gipuzkoako Foru Aldundiko Kiroletako eta Kanpo Ekintzako Departamentuan aurkeztu du federazioaren diziplina erregelamendua –gutxienekoa-, Federazioak 2010eko martxoaren 14ko Batzar Nagusian onartu zuena 2006ko urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuak 70.2 artikuluan ezarritako gehiengoarekin; eta Kirol Zerbitzuak aldeko txostena egin du.

Horiek horrela, Kiroletako zuzendari nagusiak, 2008ko maiatzaren 20ko 32/2008 Foru Dekretuak emandako ahalmenez baliatuta,

E B A Z T E N D U

Lehenengo.- Onartzea Gipuzkoako Xake Federazioaren diziplina erregelamendua, federazioaren egoitzan 2010eko martxoaren 14an onartutakoa.

Bigarren.- Erregelamendua Euskadiko Kirol Erakundeen Erregistrora bidaltzea, bertan inskribatua izan dadin.

Hirugarren.- Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio bideari. Interesatuek ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete Kiroletako eta Kanpo

administrativamente, se inscribirán en el Registro de Entidades Deportivas del País Vasco.

6.- La vigencia de los reglamentos federativos está condicionada a su aprobación y posterior inscripción en el Registro de Entidades Deportivas del País Vasco. Dichos reglamentos producirán efectos desde dicha inscripción tanto para las y los federados como para terceras personas y entidades. Hasta su aprobación administrativa los reglamentos federativos constituyen meros proyectos sin eficacia alguna”.

La Federación Guipuzcoana de Ajedrez ha presentado ante este Departamento de Deportes y Acción Exterior de la Diputación Foral de Gipuzkoa, tras aprobación por su Asamblea General en sesión de 14 de marzo de 2010, con la mayoría exigida en el artículo 70.2 del Decreto 16/2006, de 31 de enero, el reglamento disciplinario de la federación –de carácter mínimo-, el cual ha recibido el informe favorable del Servicio de Deportes.

En su virtud, el director general de Deportes, en el ejercicio de la competencia otorgada mediante Decreto Foral 32/2008, de 20 de mayo,

RESUELVE

Primero.- Prestar aprobación al reglamento disciplinario de la Federación Guipuzcoana de Ajedrez, aprobado en sede federativa el día 14 de marzo de 2010.

Segundo.- Remitir el reglamento aprobado al Registro de Entidades Deportivas del País Vasco a los efectos de su inscripción.

Tercero.- La presente resolución no pone fin a la vía administrativa. Los interesados podrán interponer frente a la misma recurso de alzada ante el diputado foral del Departamento de



02	E/R	108	2010
----	-----	-----	------

Kiroletako eta Kanpo Ekintzako Departamentua
Kirol Zuzendaritza Nagusia

Departamento de Deportes y Acción Exterior
Dirección General de Deportes

Ekintzako Departamentuko foru diputatuari, jakinarazpenaren biharamunetik hasita hilabeteko epean. Dena dela, egoki irizitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

Deportes y Acción Exterior en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de su notificación, sin perjuicio de utilizar cualquier otro recurso que estimen pertinente.

Jakin dezazun eta behar diren ondorioetarako adierazten dizut hori.

Lo que le traslado a Vd. para su conocimiento y efectos.

Donostia, 2010eko abuztuaren 6a

San Sebastián, 6 de agosto de 2010

IDAZKARI TEKNIKOA / EL SECRETARIO TÉCNICO

Sin.: / Fdo.: Ramón Martiarena Bergaretxe